

**GOTZON GARATE**  
**“ATSOTITZAK”**  
**1998**

**Sagar**

Aitatxik sagardoia landa, semetxiak sagarrak bil. **411**

Alerik ez duen sagarrari, harririk ez. **534**

Arabarra, tirri tarra, hik uzkerra, nik sagarra. **1009**

Iruritarra tirri tara, tori puzkerra ta (e)man sagarra. **7429**

Sagar arbolak loratzen hasten direnean, ganbarako sagarrak usteldu. **11544**

Sagarra lore lore denbora denian, gazteak anak arin soñua denian. **11552**

Sagarra ona izan liteke, deabruak emanik ere. **11553**

Sagarrak axala eder, harra berdin aiher. **11554**

Sagarrik ez, sagardo nahi. **11555**

San Juanetan sagarrari (sagartzeari) iru ale ikusten bazaizkio, urte horretan naiko sagar. **11754**

Uribetarra, tirri tarra, ik uzkarrek, nik sagarra. **13046**

Urkiarra (Urkia, Zeanuriko auzoa) tirri tarra, zuk uzkerra, nik sagarra. **13061**

Zuharrari ez galda sagarrik. **14353**

**Sagardo**

Haize hotzarekin sagardo eske aundirik ez. **6215**

Le(he)rtutako kupelak ezin sagardoari eutsi. **8571**

Sagardoak umea ekarri, kerexiak eraman. **11551**

Sagarrik ez, sagardo nahi. **11555**

**Sagasti**

Hiru gauza txar: emakumeak agintzen duen etxea, apaizaren pean dagoen herria eta auntza libre dagoen sagastia. **6848**

Neskatxa, auntza ta sagastia zaintzen zallak. **10128**

Sagastia goldatzeko ezkonduko urtea. **11560**

Iru gauza txar: emakumeak agintzen duen etxea, apaizaren pean dagon erria eta auntza libre dagon sagastia. **12548**

Zaharrak sagastia ibini, gazteak irazi [Zarrak]. **13422**

## **Kizki**

Kizkiaz... otzarara. **8449**

## **Sagarrondo**

Sagar gabeko sagarrondoari iñork kasurik ez. **11545**

Sagarrondo igartua surtarako ona. **11558**

Sagarrondotik gerezirik ezin bil. **11559**